

1990-XII-21

Andoaingo Udaletxean M. Larramendiren jaiot III. mendeurrenkari antolatu tako ospakizunen barnean, hileroko batzarrea egin dute goizeko hamar eta erdie-tan euskaltzain osoek. Bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, J.L. Davant, X. Diharce, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola, L. Villasante eta A. Zavala, euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariordea eta J.J. Zearreta Ekonomi eragile, urgazleak.

J.M. Barandiaran, A.M. Labaien, J. San Martin eta P. Zabaleta jaunek ezin etorria adierazi dute.

Azaroko batzar-agiria onartu da.

J.M. Makua Bizkaiko aldun nagusi izandakoaren hil-berria dela eta, sendiari doluminak agertzea erabaki da, eta halaber Bizkaiko Diputazioari.

I. Sarasola Barcelonako Unibertsitatean Euskal Filologiako titular izendatua izan denez, goresmenak eman dizkio euskaltzainburuak.

### **Izendapenak**

Urgazle nahiz ohorezko euskaltzaingaien proposamenak aurkezteko epea bete delarik, izkribuz egindako aipamen guziak jaso dira batzarrean. Batzuren batzu merezimenduen gehigarririk gabe zetozela eta, datorren urtarrilaren 7ra bitarteko denbora eman zaie aurkezleei arauzko baldintza bete ahal izateko. Hautagaien zerrenda osoa urtarrileko batzarrean banatuko zaie euskaltzainei.

### **Duvoisinin mendeurrena**

Jean Duvoisin kapitainaren heriotz mendeurrena ospatzeko, urtarrilaren 31an zenbait ekintza antolatuko direla Ziberun, aditzera eman du Haritschelhar jaunak. Hizlarien zerrenda zehaztu gabe egon arren, X. Diharcek bere hitzaldiaren izen-

burua azaldu du: “Euskarazko lehen Biblia egin zuen kapitainaren lanak eta minak”. Hileta-agiriaren fotokopia banatu da batzartuen artean. Osteguna izan arren, egun horretan egingo dute euskaltzain osoek hileroko euren bilkura Ziburun, eta ondoren Duvoisinin omenezko batzarre irekia, otsailaren lean eta 2an egingo direlarik Euskaltzaindiaren VI Barne Jardunaldiak. Egun bi horietako gai nagusien artean batzordeen berriztapena sartzen da noski, orain arte egindako lanaren balorapena eta eginkizunen antolaketa, hala nola P. Salaburuk bere txostenean azaldutako punduen eztabaida, barne direlarik. Nor-berak lekerkeena ere ikusiko da.

### **1991ko egutegia**

Datorren urteko batzar-egutegiaren zirriborroa Zuzendaritzari aurkeztu ondoren, Batzarrari azaldu dio gaur J.L. Lizundiak. Orohar, urteko mendeurren nagusiak: J. Duvoisin, L.L. Bonaparte eta J.B. Elissanbururena. Ospakizun hauen inguruan urtean zehar antolatzeakoak diren ekintza garrantzitsuenak, bestalde, honako hauek dira: aipatutako Barne Jardunaldiak, Jagon Sailekoak eta Nazioarteko Dialektologia Biltzarra, besteak beste. B. Oihatzabalen sarrera ere kontutan hartu da.

### **Oroit-idazkia**

Batzordeen lanei buruz, bi puntu aditzera eman dira urtezaharrari dagozkionetan. Lau hilabetetik behin, lehen hiru hilabetetik egitea agintzen bazen ere, agintariei batzorde guzien lanen eta diru kostuen berri ematera behartzen du Euskaltzaindia beraiekin egindako hitzarmenak. Nahi eta ez bete beharra dela baldintza hau, esan dute Jarraipen batzordekideek. Batzorde idazkariei laguntzeko, bete-beharren orri batzu aurrez gertatzea nahi luke Idazkaritzak.

*Oroit-idazkia* mugaz argitara eman nahi da aurten ere eta horretarako ezinbestekoa da batzordeburu eta idazkarien urteko laburpena datorren urtarrilaren 10erako Bilboko bulegoetan egotea. Lau hilabeteroko orria behar bezala beteko delarik, Oroit-idazkiaren eskakizun nagusiak eskuratuak izango direla, aditzera eman da.

### **Campion-Broussain elkarte**

Lege berriaren eskariz Campion-Broussain Elkarte Anonimoa izatetik Elkarte Mugatura egokitzeko proposamena aurkeztu zion diruzainak Zuzendaritzari eta legezko baldintza betetzeko, osoen batzarreari jakinerazi zaio. Denbora berean, Campion Broussainen langilegoa Euskaltzaindikoan kokatzea eskatu du J.A. Arana Martijak, langile arazoa nahiz administrazioarekiko lotura bikoiztu eta zaildu egiten duelako orain arteko egoerak. 1991ko aurrekontuetan baturik agertzen dira ekintza guziak; orain dituzten lan-hitzarmenak abenduaren 31n baliogabetuko dira, beraz, eta eskuarteko ekintzek irauten duten bitarteko hitzarmen berri bat egingo zaie urtarrilaren letik aurrera. Arreta haundiz egingo da hitzarmena uste

gabeko arazorik sor ez dadin bere egunean. Ontzat eman du proposamena batzarreak, eta legezatzeko beharrezkoa den baimena eman zaio diruzainari.

### **Eskuartekoak**

Letra larrien erabileraz aurreko batzarrean onartutako testu orraztua banatu zaie euskaltzainei.

“Euskaldunon ezaugarri baten bila: gure agergarria” delako lemapean, euskaldunok jende artean nabarmentzeko egin nahi den ekintza aurkeztu du gutun baten bidez Bittor Hidalgo Eizaguirre jaunak. Noizbait bultzatu zen horrelako asmoren bat, baina ez da ondore onik garbi ikusten, arriskugarri izan daitekeelarik une honetan. Horrela adieraziko zaio egitasmoaren eragileari.

Orotariko Euskal Hiztegiaren 4. liburukia aurkeztu zela Nafarroako Gobernuaren jauregian, aditzera eman du J.M. Satrustegik. Datorren zenbakiak bi hila-beteren atzerapena daramala, esan du I. Sarasolak, EJIekoek ez dutelako probarik igortzen. Gestioaren bat egiteko geratu da Zuzendaritza.

### **Kargu berritzea**

Jarraian, bi urtetik egin ohi den Zuzendaritzako kargu berritzeari ekin zaio. Arauen berri eman ondoren botuen zenbaketa egin da. Bertan bildutako hemeziti euskaltzainez landa, A.M. Labaien eta J. San Martinek J. Haritschelharri bidali diote euren ahala; P. Zabaletak bere aldetik J.A. Aranari, eta E. Knörrek jaso du J.M. Barandiaranena. 23 hautesle orohar.

Euskaltzainburuaren txandan, 14 txartel izan ditu J. Haritschelharek, bi P. Altunak, bat A. Irigoyenek, eta zuri beste 6. Gehiengo nagusia lortu du beraz lehen itzulian J. Haritschelharek.

Buruordea hautatzean.: J.M. Lekuonak 12, E. Knörrek 7, A. Irigoyenek 2, P. Altunak 1, eta zuri bat. Bigarren itzulian, J.M. Lekuonak 12, E. Knörrek 7 A. Irigoyenek 2, P. Altunak 1, eta zuri bat. Gehiengo soilarekin, beraz, J.M. Lekuona da buruordea.

Idazkariari dagokionez, 12 txartel izan ditu J.M. Satrustegik, 7 P. Salaburuk, 2 A. Irigoyenek, bat J.A. Aranak, eta zuri bat. Bigarren bozketan, 14 botu izan ditu J.M. Satrustegik eta 9 P. Salaburuk. Gehiengo nagusia lortu du beraz J.M. Satrustegik.

Diruzainaren aldian, J.A. Aranak 18, A. Irigoyenek 4 eta P. Altunak botu bat. Gehiengo nagusiarekin atera da lehen itzulian J.A. Arana Martija jauna.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

## **BATZAR IREKIA**

Andoingo Udaletxean, 1990.eko abenduaren 23an, eguerdiko 12etan ospatu du Euskaltzaindiak Manuel Larramendiren III. Mendeurren ospakizunen batzar

irekia. Mahaipuruan eseri dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; Joseba Arregi, Eusko Jaurlaritzako kultura kontseilaria; Imanol Murua, Gipuzkoako diputatu nagusia; Carlos Sanz Diez de Ure, Andoaingo alkatea eta M.<sup>a</sup> Karmen Garmendia, Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia. Mahaipuruaren eskubialdean, P. Altuna, J.M. Lekuona, L. Villasante, E. Knörr eta F. Ondarra euskaltzainak eta J.L. Lizundia, idazkariordea. Ezkerraldean: J.I. Telletxea Idigoras, euskaltzain urgazlea; Xabier Huizi, Patxi Irigoras, Joseba Erkizia, Jose Forcade eta M.<sup>a</sup> Pilar Collantes, Andoaingo zinegotziak. Batzar aretoan daude, bestalde, X. Aranaburu, F. Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, X. Kintana, L.M. Mujika eta J.J. Zearreta, urgazleak ere.

Carlos Sanz Diez de Ure, Andoaingo alkatearen ongi-etorriarekin hasi da Euskaltzaindiaren batzarre irekia, Udaletxeko aretoa bete-bete delarik.

Jarraian, Gipuzkoako diputatu nagusi den Imanol Murua jauna mintzatu da. Diputatu Nagusiak Larramendiren euskararen alorra goraiatu du eta baita garai hartan Larramendik euskaldungoa biltzeko egin zituen ahaleginak goratu ditu. Amaiera gisa “Larramendi Euskal Herriko gizon eskergarria dugu eta Euskal Herriak merezi duen omenaldia eskaini dio” hitzez amaitu du hitzaldiñoa.

Ondoren, J. Haritschelhar, euskaltzainburuak hitz egin du. Beronek herri agintariak, euskaltzainak eta herriko lagunak agurtuz gero Euskaltzaindiak azken urteotan burutzen ari den lana laburbildu du, hots, Gramatika, Atlas, Hiztegi-gintza eta abarri buruz xehetasunak eskainirik.

Ondorik, P. Altuna euskaltzainaren txostena: “Larramendiren haurtzaroko albiste berriak”. Txostengileak Larramendiren haurtzaroko zehazkizunak eskaini ditu, alegia, non jaio zen, haren gurasoak nortzu izan ziren, non bizi ziren, zein bizibide edo lanbide zuten eta abar. Ikerketez ongi hornituriko hitzaldia eman du.

Ostean, J.I. Telletxea Idigoras jaunaren txostena: “Larramendi: un guipuzcoano trasplantado y vuelto a implantar”. Hizlariak Larramendiren bizitzako pasadizu ezezagunak eskaini ditu, hots: Larramendiren garaiko politika egoera —absolutismoa— Larramendiren euskararekiko arreta, Larramendiren bizitza Jesusen Lagundian: Bilbon, Gasteizen eta Baionan egindako denboraldiak, Loiolako urteak, sermolaria, idazlea: *El Imposible vencido* (1729), *Diccionario Trilingüe, Corografía de Guipúzcoa...* Bukaeran zera adierazi du mintzalariak: “Larramendi un guipuzcoano trasplantado y vuelto a implantar, con grande fronda, extensas ramas, estupendos frutos”.

Joseba Arregi jaunak, Jose Antonio Ardanza, Euskadiko Lehendakariaren izenean, beronen ezin etorria agertuz, mendeurreneko ekintza akademikoei amaiera ematen die, hitzaldi labur batez. Hiru arrazoi azpimarratu ditu: 1. Larramendi XVIII. mendeko euskalaria izanik, XIX. hondamendiaren igarle izan zela eta XX. mendeko amaieran gaudenez, geure egitekoen eredu izan zelarik. 2. Ez dagoela Euskal Herririk euskararik gabe eta Euskal Herria bere buruaren jabe ez bada. 3. Kanpotik ikasitakoa ez da mimetismoz errepikatzekoa, norberaganatzekoa eta egokitzekoa baizik.

*Euskaltzainburua*  
*Jean Haritschelhar*

*Idazkaria*  
*Jose M. Satrustegi*